

Liburuak

KRITIKA

Hitzdeologia baterako

Hemeroteka

Aritz Galarraga

Pentsatzen dut hiztun komunitate guztiek izango dutela, gutxi-asko, hitz egiten duten hizkuntzaren gaineko kezka. Komunikaziorako biderik zuzenena denez sarri, hiztunak izan ohi du hitz egiten duen horren gaineko zalantza, arreta, jakin-mina. Are idazlea, hizkuntza lan-tresna behinena duenez, maiz kezkatu izan dute hitz, hiztegi, gramatikek, eta idatzi ere idatzi izan du horiek guztiak buruan. Egiten duen literaturak (letrak elkarri josteak) ematen baitu horrelakoei itzulipurdia egiteko, ausartzeko, ausaz, baita esku sartzeko ere. Iñigo Aranbarriren kasua da hori, *Hitzak eta giltzak* liburuarena.

Orain hamar urte kalean, Alberdania argitaletxeko Zerberri sailean (gogoratu: orotariko saiakera laburrak biltzen dituen bilduma), hizkuntzaren inguruko gogoeta da *Hitzak eta giltzak*, edo hizkuntzaren parte diren hitzen inguruko, nahiago bada. Edo hitzetatik abiatutako hizkuntzaren gaineko hausnarketa. Eta aurrera, hizkuntza hitz egiten duen jendar-tearen gainekoa. Alegia, hitza duela irteera helmuga jakinik



Hitzak eta giltzak.
Iñigo Aranbarri.
Alberdania, 2001.
104 orrialde.
9,50 euro.

gabeko bidaia noranahiko honek. Kolpe labur, printza zorrotz, ele zoli, handik eta hemendik hartutako puskek osatzen dute Aranbarriren saiakera, orain burutazio bat, pasadizo bat gero, apunte bat hurrena. Alor asko eta askotarikoak hunkitzen ditu bertan (alor asko, baserritik hirira egin duten hitzena, adibidez). Irakurlearen gozamen eta argibiderako guztiak ere.

Argigarriak egin zaizkit orriotan erabili dituen hainbat kontu. Esaterako, politika eta hizkuntzen arteko limurkeriez, zarata ateratzeaz, arerioari hitza zikintzeaz, norberaren lexikoa sortzeaz, zaintzeaz, hedatzeaz ari zaigunean. Albistegiek, hedabideek oro har, hitzen zikintze horretan duten ardura eta egiten duten lana aitutzen denean. Ez alferrik, boterearen ahotsa horietan modulatzeko delat gaztigatuko digu. Eta hori esan ondorenean nabarmenduko digu euskal prentsaren garrantzia, egunero-egunero kalean zirkulazioan jartzen duen hitz eta esamoldeen kopuruagatik bada ere, “hagitzek handiagoa literaturak izan dezakeena baino”. Eta idazle batek diosku hori.

Zail da liburuan zehar hunkitzen diren guztiak hemen laburbiltzea. Baina ezin esan gabe utzi arkeologia filologikoa baino hitzen bigarren bueltak maitago dituen Aranbarririk, hizkuntzaren gaineko kezka zabaldu dituela bertan, hitzek eta ideologiak duten harremanari buruzko bilduma honetan, saiakera labur eta emankor honetan. Laburra eta indartsua izatea baita luze eta eder-jantzia eraisteko era bakarra.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com